72



# Jonasen Libria

## Buru 1.

Jonas Ninibara igorriak ihes egiten du, eta ountzibatetan sarthurik, itchasoz badoua. Tempesta batek irailtzen du itchason barna.

1 Jauna mintzatu zen Jonas Amathiaren
Semiari, erraiten zeyolarik:
2 Zouaza orai Ninibako hiri handiala
eta han barrey'ezazu ene elhia, hanko
gachtokeria altchatu beita ene gan'artino.
3 Jonas jarri zen arren bidian, bena
gogouala jin zeyon Tharsis erat jouaitia,
Jaunaren aitzinetik ihes egiteko. Eraitsi zen
Joppera, eta edirenik Tharsis erat abianzen
ountzi bat, hartan sarthu zen bestekila, eta
phakatu zin hiri hartarat igaraiteko saria,
Jaunaren aitzinetik ihes egiteko.
4 Bena Jaunak igorri zien itchas gaña
aize oldartu bat, eta tempesta handi bat
jinik ountzia phorrokatzeko perillian zen.
5 Mariñelak lotsaturik, oihuz deith egiten
hasi ziren Jinkouari, eta kargâ ourthouki
zuten itchasoualat, ountziaren arhintzeko.
Jonas hatik, ountzi zolala eraitsirik, han
tinki lo zayouen.
6 Haren gana hullanturik, ountzi zañak
erran zeyon: Noula egiten ahal duzu lo?
Jaiki zite, deith egizu zoure Jinkouari,
benturaz orhituko beita gutzaz, eta ezpeitu=
ke nahi hil gitien.
7 Erran zuten gero algarren artian:

ikhertu behar dugu zorthia, jakiteko nountik gaitz
hau horra zaikun. eta zorthia ourthonkirik
erori zen Jonasen gaña.
8 Galthatu zeyoen arren: Erran ezaguzu
zerk gutier perill hountan ezarri. Zer
ofizio duzu? Nountko zira? Nouat zoazka?
zouñ da zoure herria?
9 Ihardetsi zeyen: Hebrear nuzie, eta
zeluko Jinko Jauna, itchasoua eta lurra
egin tiena, zerbutchatzen dit.
10 Ordian, lotseri handibatetan sarthurik,
erran zeyoen: zertako hola egin duzu? jakin
beitzuten bera ganik Jaunaren aitzinetik
ihesi zoualal.
11 Erran zeyoen arren: Zer egin behar dei-
zugu itchasoko boulltetarik goure begiratzeko?
Uhinak goratzen ziren eta lodiagotzen.
12 Jonasek ihardetsi zeyen: har eta ourthouk
nezazie itchasoualat; eta ematuren da.
Badakit ni nizalakoz tempesta hau jin
dela ziren gaña.
13 Mariñelek hatik lhu idorriala arrima-
tu nahi zuten ountzia, bena etziot en,
itchasouak goraturik bere uhiner gordatzen
zutielakoz.
14 Oihuz arren erran zuten Jinkouari:
othoitzen zutugu, Jauna, gizon hounen
heriotziak ezkitzan gal eraz, eta gaitzik
egin ez tien odola eztezazun gutan gaña
eroreraz; zuk nahi duzuna egiten beituzu.

15 Jonas harturik ourthouki zuten itchasou-
-alat, eta behala ematu zen.
16 Jinkoarentako gurgarriko lotsa bat jarri
zen gizon hoyen gogoan. Jaunari eskentu
zuzten hostia elibat eta bere hitzemanak.

## Buru II.

Arrañ batek iresten du Jonas. Profetaren othoitzia. Itchas bazterrialat gort'ourthoukitzen du arrañak.

1 Jinkoak ordu berian igorri zien arrañ han-
dibat Jonasen irestera: hirour egunez eta hirour
gayez egon zen arrañaren trypan.
2 Hantik Jinko Jaunari othoyez,
3 Erraiten zeyon: oihu egin dit Jaunari ene
bihotz-min handian, eta entzun nizu; hobi bar-
natik oihu egin deizut, eta entzun duzu ene botza.
4 Itchas barneko hour zolalano ourthouki naizu:
ald'orotarik bousti nuzu, zoure uhinak oro gañetik
igaran betzaintat:
~~5 Hour pian nintzalarik heriotko muga ikhousi dit:~~
~~hosinak ald'orotarik unguratuurik.~~ itchas uhinek
~~buria gañtitu ditazie.~~
5 eta erran dit: zoure begien aitzinetik ourthou-
kirik nuzu; bena hatik ikhousiren dit orano zoure
egongia sañtia.
6. Hour pian nintzalarik, herioko muga ikhousi dit:
hosinak ald'orotarik unguratuurik, itchas uhinek
buria gañtitu ditazie.
7 Eraitsi nuzu mendien erroetarano: lurretik
kazaturik baninta bezala, ikhousten nuzu hour
gaztelu hountan; hiroikeriatik begiatzen ditazut

bizia, oi ene Jinko Jauna.

8 Ene bihotz-min handian, Jauna, orhitu nuzu zutzaz; igaran dadila ene othoitzia zutara, zoure egongia Saintiala.

9 Ezdeuskerier jarraiki zalek, uzten dizie urrikia Soltazalia.

10 Nik hatik eskentuko deitzut sakrifizionak laidoriozko kantikekila; Jaunari erranen ditit salbatzeko hitzeman dutudanak oro.

11 Ordian arrañari Jaunak manhaturik goitourthoukitzez Jonas, ourthouki zien itchaso bazterriala.

## Buru III.

Jonasek banatzen du Ninibako arrabaskia. Ninibarrek penitenzia eginik, Jinkouak pharkatzen dieie.

1 Beste aldi batez Jauna minzatu zen Jonasi, erraiten zeyolarik:

2 Zouaza orai Ninibako hiri handiala eta han barreya ezazu manhatu deizudana.

3 Jaunak manhatu bezala, jouan zen Jonas Niniba hirour egunen bideko hiri handiala.

4 Eta han sarthurik egun batez ebili zen, oihuz zionelarik: Berrogei egunen barnen Niniba arrabaskaturik date.

5 Ninibarrek Jinkouan sinhetsirik, manhatu zuten orok barour egin zezen, eta zakiak jauntsi zuzten, handienek eta tchipienek.

6 Berri hori jakin oundouan erregek, jaiki zen bere tronotik eta arropak bilaizirik, jauntsi zien zaku bat eta hauts gañen jarri zen.
7 Oihuz gero jakin erazi zien Ninibako bazter orotan erregeren eta printzen manu hau: gizonek, zamariek, idiek eta ardiek eztezela deus jan; eztitiela bazkayialat jouan, eta eztezela edan.
8 Gizonak eta aberiak egon ditiela zakuz estalirik, eta ahal oroz oihu egin dezela Jaunari: bakoitchak, haren ganat utzulirik, utz dezala gaizkiko bidia, eta eskiak theyutu deitzon gachtokeria.
9 Nourk daki Jaunak ezteikunez pharkatuko, ematuren eztienez bere khechu borthitza, eta khambiraturen eztienez goure galtzeko eman dien mania?
10 Hayen egitatez behaturik, Ginkouak ikhousi zien, gaizkiko bidia utzirik, haren ganat utzuli zirelaz; eta hayez urrikalturik igorri nahi zeitzen gaitzak etzeitzen igorri.

Buru IV.

Jonas bihotz minetan dago haren errana eztelakoz egin. Jaunak enthelegerazten deyo eztiela ukhen behar bihotz minik Niniba eztelakoz galdu.

1 Ordian Jonas bihotz min handi batek harturik khechatu zen.
2 Eta Jaunari erran zeyon: Eniena hola erraiten ene herrian nintzalarik oraino? Hortakoz gogouan hartu nizun Tharsiserat jouaitia.

Banakizun Jinko ezti, houn, luzakor, urrikalsu-
bat zinela, eta bekhatiak pharkatzen zuntutiela.
3 Othoitzen zutut arren, Jauna, khorpitzetik
idok' ezadazut orai arima, hiltzia bizia beno
nahiago beitut.
4 Ihardetsi zeyon Jaunak: ouste duzia khe-
chatzeko arrazou zoumbait baduzula?
5 Ninibatik jalkhirik, goizeko aldian jarri
zen Jonas, eta har heipe egin zien bate-
-tan phausatu zen, hirian zer helturen zen
jakin artino.
6 Ordian Jinko Jaunak sortherazi zien, —
Jonaşen buru gañetik, huntz osto oundobat,
itzal egilebat, haren heipian egon ahal
zadin, berouak akhiturik beitzen; eta Jonas
alageratu zen.
7 Biharameneko argi hastian, Jaunak
igorri zien har batek chilaturik, huntz
osto oundoua eiharțu zen.
8 Gero ekhia agertu zenian, suzko aize bero
bat Jaunak eraik' erazirik, Jonas ekhi pian
ukho zagouen, hatsik ezpeitzioueu har, eta
hil nahitu zen, erraiten zielarik, bizi
beno nahiago niz hil.
9 Jaunak erran zeyon ordian: ouste duzia
arrazou zoumbait baduzula huntz osto
horren kountra khechatzeko? Jonaşek
ihardetsi zeyon: bai, bai, arrazou badit
khechatzeko, eta hil nahitzeko ere.
10 Jaunak erran zeyon: khechatzen zira,

dohañik, zuk layuntu gabe, gay batez sorthu
eta handitu zaizun huntz osto baten kountra,
biharamen gayian hil zaizulakoz:
11 eta nik eniokezu pharka Niniba hiri handiari, hanko seitan hogei mila jenter, esku eskuña echkerretik ezagutzen eztiener, eta abere saldoner?